ataria

2021-09-24 • 1.476. zenbakia
107.6 fm • www.ataria.eus

Formulaziotik esperientziara

AURKIBIDEA

Iritzia Ura Iturralde **3**
Erreportajea Triatloiaren gorakadaren arrastoan **4-7**
Arima Elikatuz Maddi Etxeberria **8-9**
Asteko Gaia Zientzia irakasgaiak erakargarri bihurtzeko erronka **10-17**
Hitzez Hitz J.Manuel Odriozola **18-19**
Iritzia Manex Gurrutxaga **20**
Iritzia Maddi Amiano **21**
Bertsoa Beñat Salbarredi **22**
Agenda 23-25
Elkarrizketa
Distopia elektrotxaranga **26-29**

Azaleko irudia
Josu Artutxa Dorronsoro

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83€

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **Lege Gordailua:** SS-1323-2013 **Telefonoa:** 943 65 56 95
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez **Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizalete **Bezero arreta:** 943 30 43 46
Webgunea: ataria.eus **Posta elektronikoa:** ataria@ataria.eus **Irratia:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
Publizitatea: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:

Tolosaldeko gizarte eragileak

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil.

Gipuzkoako Foru Aldundia

URA ITURRALDE
ARGAZKILARIA

Albaniako azken trenak

Zoragarria izan da niretzat berriro ere bidaiatu ahal izatea, maleta egiteko unean sentitzen dudan urduritasun hori berreskuratzea. Argi geratu zait dagoeneko, etxean geratzeak ez didala onik egiten.

Duela bizpahiru bat hilabete, Albaniako trenei buruz hitz egiten zuen dokumental bat ikusi ondoren hartu nuen bertara bidaiatzeko erabakia, argazki erreportaje bat egiteko asmoz. Bidaia telesail hartako protagonistak zioen bezala, Albaniako trenek garraiobide bat baino gehiago, bertakoek disfrutatzeko atrakzio bat dirudite.

Tirana hiriburutik, 10 km-tara kokatua dagoen tren geltoki nagusia, eraikin txiki bat besterik ez da txartelak erosteko bi leihatilez osatua. Iritsi orduko sumatu genuen begirada guztiak gure gain genituela, galdetu ere egin ziguten zergatik trena aukeratu, askoz ere eroso eta azkarragoa den autobusean bidaiatu beharrean. «Historia interesgarria duelako eta aurki desagertu egingo delako», erantzuten nien nik argazki kamera eskuetan nuela.

Desagertu, edo gutxienez trenak berritu, pentsatu nuen neurekiko. Berrogei bagoi herdoildu besterik ez baitituzte, gehienak hirurogeiko hamarkadan Italian edo Alemanian eraikiak. Huek garraiatzeko, hogeita hamar urteko ibilbidea duten bederatzi tren-makina txekoslovakiar. Leihatiletako kristal gehienak hautsiak daude, askotan umeek harriak jaurtikitzen dituztelako. Istripurik gerta ez dadin, tren-gidariak, bidaia osoan zehar, bozina jotzen du eta mantsoago gidatu, ezustekorik gertatuz gero geldiarazteko denbora izan dezan. Beraz 35 km orduko abiaduran ia hobe da paisaiaz gozatzeko bururik ez ateratzea, gertatutako ezbeharrak bat baino gehiago izan baitira.

Egia esan niretzat, egin genituen hiru bidaiak hunkigarriak izan ziren, agian albaniarrak oso atseginak direlako edo argazkilari batentzat estetika ezin politagoa zelako. Esan beharra daukat trena izorratu ere egin zela, ordutegiak ez direla gehiegi errespetatzen, eta dituen lau linea desberdinetatik bakarra zegoela martxan. Guzti honek bere xarma ere badu ordea, iraganera bidai bat, albaniar komunismo garaira hurbilduko gaituen ibilbide polit bat... Presik gabe, lasai...

Egia esan niretzat, egin genituen hiru bidaiak hunkigarriak izan ziren, agian albaniarrak oso atseginak direlako edo argazkilari batentzat estetika ezin politagoa zelako

Denbora gelditzen baita Albanian, oasi eder ezezagun bat bizi dugun pandemia nekagarri honen barnean.

GAZTEAK ERE TRIATLOIAN

Gero eta gazte gehiago animatzen dira triatloia praktikatzera, Tolosaldeko Triatloi Taldea ere bada horren erakusle.

Imanol Garcia Landa

Tolosaldeko Triatloi Taldean kide gazteak hasi dira pixkana sartzen. Asier Mujika ibartarra taldeko kide beteranoetako bat da, eta betidanik, bere nahia gazteak triatloia egiten hastea izan da: «Gorputz Hezkuntzako irakaslea naizenez, igeri egiten zutenei eta kirola egitea gustatzen zitzaien nire ikasleei, beti proposatzen nien taldera etortzeko eta triatloia probatzeko». Ez zuela arrakasta handirik izaten gaineratu du, baina behintzat mezua zabaltzen zuela gazteen artean. Mara Arruti tolosarrak aurreko uda eta gero idatzi zion esanez igeri egiteari utziko ziola eta animatzen zela triatloia probatzera. «Mara horrela hasi zen, eta gero guraso batzuk jakin zuten gazteen taldetxo bat martxan jarri nahi zela, semeak futbola utzi eta animatu zen, eta bere atzetik beste batzuk iritsi ziren», azaldu du Mujikak.

Egun bi junior mailako (20 urte azpikoak), lau jubenil eta kadete bat daude taldean. Arruti igeriketan aritu da betidanik: «Pena eman zidan uzteak, baina iritsi zen momentu bat 'honaino' esan nuela. Eta Asierrek beti soinketan triatloia probatzeko aukeraz hitz egiten zidanez, deitu nion, hasi nintzen eta oraingo hau bigarrengo denboraldia izango da». Triatloira igeriketatik pasatu da, baina aurretik ere atletismoa egin zuen Arrutik, eta gustuko du korrika egitea. «Bizikleta ez nuen inoiz probatu eta gustatzen zait».

Hiru kirol izanik, ez da hain erraza izaten gazteak triatloia egiten hastea. «Azken finean bizikleta behar da, igerilekura joateko aukera... Bai eskatzen duela aukera ezberdinak izatea», zehaztu du Mujikak, eta laguntza moduan Gipuzkoako Federazioak probatu nahi duten kirolari gazteei bizikletak uzten dizkiela azaldu du. «Urte guztirako uzten ditu, 50 euro inguru ordainduta. Beraz, kontua probatzea da eta ikustea gustatzen ote zaizun».

Entrenamenduek ere bere antolakuntza behar dute. Arrutik, adibidez, egunero kirol bat egiten du, astean zehar atletismoa eta igeriketa uztartuz. Asteburutan, eguraldiaren arabera, bizikletan ateratzen dira. «Ondo eramaten da, entretenigarriagoa da kirol ezberdinak egitea, ez delako denbora guztian kirol berdina egitea», esan du tolosar gazteak.

Mujikak zazpi bat urte daramatza triatloia egiten. Aurretik futbolean aritzen zen, eta udan triatloia egiten zuen. Gero, futbola utzi ondoren, triatloian gehiago sakondu ahal izan du. Bere agenda moldatzen saiatzen da hiru kirolak entrenatu, eta egunero zerbait egiteko. Mujikak berak laguntzen die gazteei entrenamenduak osatzen: «Adin horietan garrantzitsua da jendearekin entrenatzea. Gero, gure adinarekin, lana dela-eta, ahal duzun moduan moldatzen zara, eta burugogorra garenez, ateratzen dugu tartea entrenatzeko. Baina adin horretan beste batekin errazagoa egiten da, erosoagoa da». Astean hiru egunetan behintzat elkarrekin entrenatzen dute gazteek, eta

Zutik, Axier Tejeria, Mara Arruti, Ximena Ceberio eta Aratz Urkola. Makurtuta, Elur Urkola, Iker Otamendi eta Joanes Zubeldia. **ATARIA**

ahal bada baita laugarren bat ere. «Ez da entrenatzea soilik, baita sozializatzea, elkarrekin giro onean egotea», esan du Mujikak, eta Arrutik bat egiten du: «Nik uste dut oso garrantzitsua dela jendearekin kirola egitea. Bakarrik gogorra izaten da, eta taldean errazagoa izaten da».

Ateak zabalik

Aurtengo denboraldiari dagokionez, Arrutik Portugaleten parte hartu zuen eta oraingoz ez du besterik izan. «Orain entrenatzen hasi naiz eta ez nago sasoi betean. Pixkana erritmoa hartzen ari naiz, eta ikusiko dugu besteren batean parte hartzen dudan», zehaztu du tolosarrak.

Mujikak, bere aldetik, hirugarren postua lortu zuen Euskadiko Triatloi Esprint Txapelketan. «Oso gustura nago lortutakoarekin, ez baikenuen espero», esan du. «Abuztuan oporretan egon ondoren, inongo helbururik gabe etorri nintzen, eta oso gustura emaitzarekin». Aurten urte arraroa izan dela gaineratu du, uda aurretik ez baita probarik egon. «Mara-eta izan ziren Portugaleten, baina bestela Euskadiko zirkuituan ez da gehiagorik antolatu. Triatloi guztiak irailera eta urrira atzeratu dira».

Euskadiko Triatloi Esprint Txapelketan, Mujikaz gain, taldeko beste bi kide ere igo ziren podiumera. Pili Esnaolak bigarren egin zuen beteranoen mailan, eta Elur Urkolak hirugarren jubenil mailan. «Taldetik kirolari asko joan ziren, adin ezberdinekoak, eta oso polita izan zen», azaldu du Mujikak. Bestalde, Iparraldean egindako triatloi batean Jon Artutxa taldekideak beteranoen mailan irabazi zuen.

Egun taldeko triatletak entrenamenduetan murgilduta daude. «Ikusiko dugu hurrengo urtera begira zer egutegi jartzen duten, eta horren arabera jarriko ditugu helburuak», esan du Mujikak. Berak aholkatzen die gazteei zer probetan izena eman: «Ibilbidea ikusten dut eta esaten diet batean edo bestean izena emateko, polita delako edo bizikletako ibilbidea erraza duelako». Orokorrean 22 lizentzia dituzte gaur egun Tolosaldeko Triatloi Taldean. Helduen kategoriakoak bakoitza bere kasa entrenatzen da eta elkarrekin erabakitzen dute zein probatan parte hartu. «*Whatsapp* talde bat dugu eta elkarren artean adosten dugu bakoitza zein probatan nahi duen izena eman, eta nolabait elkarrekin joateko antolatzen gara», esan du Mujikak.

Taldeko kide izan nahi duenak ateak irekita dituela nabarmendu dute. «Oso giro polita dago eta probatzeko gomendatzen diet. Probatzen duenari uste dut gustatuko zaiola, oso entretenigarria delako», esan du Arrutik, eta Mujikak gaineratu: «Edozein zalantza duenari klubetik laguntzeko gaude, edozein dela ere kirolariaren adina».

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko
Deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa Ataria-ko bulegotik.

Iragaki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.

Paula del Pozo Rigan (Letonia), Europako Kopan lehiatzen, abuztuan. **ATARIA**

«Ez dakit noiz, baina helburua Olinpiar Jokoetan lehiatzea da»

PAULA DEL POZO
TRIATLOILARIA

I. Terradillos Gaztañaga

Triatloilari alegiarrak 19 urte ditu, eta orain arteko emaitzei erreparatuta, etorkizun oparoa du aurretik. Une honetan Madrilgo Blume goi errendimenduko zentroan ari da prestatzen.

Nolatan ari zara Madrilgo zentro honetan?

Aurreko urtean sartu nintzen bertan, beraiek deituta, eta aurten bigarren urtea egingo dut.

Nola izan zenuen bertan hasteko aukera?

Batetik, emaitzei begiratzen diete, eta horrekin batera, probak egiten dituzte beraiek. Itxialdian ginenean deitu ninduten, eta hura amaitzean Madrilera joan, eta proba psikologiko eta fisikoak egin zizkidaten. Proba horien emaitzekin baiezkoa eman zidaten, eta horrela hasi nintzen.

Triatloiko Europa mailako prestaketa gune garrantzitsuena omen da.

Olinpiar kirol guztiak jorratzen dira bertan, eta errendimendu handiko kirolari asko igaro dira bertatik. Helburua, batik bat, Olinpiar Jokoetarako prestaketa egitea izaten da.

Nola uztartzen dira ikasketak kirol prestaketarekin?

Zentroan gauden ia gehienak ari gara ikasketak egiten kirolarekin batera. Nire kasuan, zentrotik gertu dut ikasketa gunea. 08:00etatik 10:30era eta 15:00etatik 17:30era ditut eskolak, eta 11:00etatik 14:00etara goizeko entrenamenduak eta 17:30etik aurrera arratsaldeko entrenamenduak, beraz, nahiko ondo daukat biak uztartzeko.

Nolako aldaketa izan da errendimendu handiko zentro honetan hastea?

Aldaketa handia izan da. Banekien ez zela erraza izango. Batetik etxetik atera eta Madrilera joatea pauso handia izan da. Gainera, osasun egoeragatik ezin izan dut gehiegi mugitu eta etxera joan, baina, azken batean, horrek indartsuago izaten lagundu didala esango nuke. Gustatzen zaidana egiten ari naiz, eta oso pozik nago.

«Poza ematen dit gazteak triatloian murgiltzen direla ikusteak; pixkana indarra hartzen ari da»

Zentro honetan aritzeak esan nahi du zure kirola serioago hartzea?

Esan moduan, zentroko prestakuntzaren helburua Europako edo Munduko Txapelketa baterako edo Olinpiar Joko batzuetarako maila hartzea da. Nik oso serio hartu dut nire kirola, beraz, horretarako oso egokia da.

Olinpiar Joko batzuetan aritzea da zure helburuetako bat.

Bai. Ez dakit noiz izango den, baina, azken batean, gure entrenatzaileek horretarako prestatzen gaituzte. Beraiek eta baita nik ere horretara iritsi nahi dugu.

Aurtengo denboraldian emaitza ederrak lortu dituzu.

Nik uste dut nahiko denboraldi ona izan dela. Bi aste barru Espainiako txapelketa dut eta uste dut emaitza ona lortuko dudala, eta urrian Europako elite mailako txapelketan lehiatuko naizela uste dut. Hor bukatuko dut denboraldia, eta ondoren oporrak hartuko ditut.

Krosean eta igeriketan aritzen zinen aurretik. Nolatan eman zenuen triatloian aritzeko pausoa?

Pixkana hasi nintzen. Lehendabizi igeriketarekin hasi nintzen, ondoren krosa probatu nuen, eta hori ere gustatu egin zitzaidan. Gero biak batera ere egin nituen. Eta, horrela triatloia probatu nuen, asko gustatu zitzaidan, eta horretan jarraitzen dut.

Hiru kirolak dituzu gogoko?

Desberdinak dira. Lehiatzeko lasterka egitea nahiago dut, eta entrenatzeko, berriz, igeriketa eta bizikleta.

Tolosaldean triatloian egiten dena jarraitzen al duzu?

Bai, jarraitzen dut. Poza ematen dit gazteak triatloian murgiltzen direla ikusteak. Indarra hartzen ari den kirola da. Ni Asier Mujikarekin eta Sandra Lopezekin hasi nintzen, hasieran txapelketa txikiekin eta pixkana handiagoetan lehiatzen.

ATARIAn jarrita Goierri eta Urola Kostako Hitza egunkarietan doan

hilberriak · urteurrenak · eskertzak

Txikia: 110€ · Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ · Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ · Atarikideentzat: 30€

Eskelak · ataria@ataria.eus · Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.

MADDI ETXEBERRIA
DIETISTA NUTRIZIONISTA
@BEGAONEGIN

Aurkezpen garaia

Kaixo! Ziur nago zuetako batzuk ezagutuko nauzuela, baina beste batzuk agian ez; beraz, neure burua aurkeztera eta nire historia kontatzera nator. Maddi Etxeberria Otaegi naiz, Andoainen jaioa, baina zortzi urte nituenean Larraul etxe bihurtu zitzaidan.

Hamasei urte nituela eta argaltzeko helburuarekin, dieta makrobiotiko bat egiten hasi nintzen. Lortu nuen helburua! Bederatzi kilo galdu nituen, baina egia esan behar badizuet, ez nintzen ez ezberdin, ez hobeto ikusten (eta nire ziurtasunik ezek berdinak izaten jarraitzen zuten). Nabaritzen nuen bakarra, arropa txikiagoetan sartzen nintzela zen, baina gutxi gehiago.

Dieta guztiekin gertatzen den bezala (nahiz eta nik hori gerora jakin), bizitza «normalera» itzuli nintzenean, galdutako pisu guztia berreskuratu nuen, baina bere momentuan hain «ondo» funtzionatu zuela ikusita, makrobiotikako formakuntza bat egiten hasi nintzen, batxilergoarekin batera. Horri segika, eta gerora lan egiteko titulu ofizial baten bila, Gasteizera joan nintzen Giza Nutrizio eta Dietetikako gradua ikastera, baina nire asmoak asko aldatu dira orduda-nik.

Graduan zehar, ikasitako gauza asko alferrikakoak iruditzen zitzaizkidan; eta aldiz, beste asko faltan bota nituen. Zentzugabea iruditzen zitzaidan kurtso erdia ordenagailu programa baten bidez kaloriak koadratzen igarotzea. Batetik, hori ordenagailuek oso ondo egiten dutelako, eta bestetik, bizitza erreala ez delako hori; edo ez, behintzat, nire kasua eta nik lan egin nahi dudan modua.

Gradua amaituta, anti-dieta, osasuna neurri guztietan eta elikadura intuitiboa bezalako mugimenduak interesatzen zaizkit, batez ere. Ziurrenik esperientzia pertsonaletik abiatuko dira interes hauek, baina baita unibertsitateaz haratago nik ikasi dudanagatik. Zientziak frogatu du dieten %95ak porrot egiten duela, baina hor jarraitzen dugu, askorentzat irrealak diren kanon batzuei jarraika, gorputz zehatz bat bilatu nahian gure osasuna galduz (bai fisikoa, bai mentala). Eta puntu honetan erlazionatzen dut nutrizioa osasun mentalarekin. Izugarrizko erlazioa baitauka; nahiz eta zoritxarrez garrantzi handirik ez eman.

Ez dut debekuetan sinesten, ez dut uste elikagai bat txar bezala kalifikatuta ezer onik lor daitekeenik. Izan ere, murrizketak, betekada bat ekar dezake. Debekuak denbora luzez mantendu ostean, kontrol-eza iritsi daiteke. Osasun mentala kaltetu daiteke.

Gure gizartean lodifobia oso barneratua daukagu. Osasuna gorputz normatiboekin soilik erlazionatzen dugu eta jendearen bizi-ohiturak ezagutuko bagenitu bezala hitz egiten dugu (ezagututa ere horretarako zilegitasunik edukiko ez genukeen

arren). Pertsona lodien bizi-ohiturak aurretik juzgatzen ditugu; pertsona lodi guztiek bizitza supermerkatuko pizzak jaten pasako balute bezala. Aldiz, pertsona argal batek hori egiten badu, ez da ezer gertatzen.

Ni naiz lehenengoa horrelako pentsamenduak eduki dituena eta gaur egun ere dituena. Bidea ez da erraza; gizarteak jartzen digun presioa handia da eta egunerokotasunean mezu subliminal asko jasotzen ditugu. Beraz ez, ez da erraza sinestarazi diguten guzti hori desikastea. Baina gure esku dago eta behin kontziente izanda, pausu txikiak ematen hasteran datza bideak. Horretarako, hausnartu dezagun ondorengo esaldi honen inguruan: munduko pertsona guztiok jarduera fisiko berdina (mota, denbora, intentsitatea) eta dieta berbera izanda ere, gorputz-aniztasuna egongo litzateke.

> Zientziak frogatu du dieten %95ak porrot egiten duela, baina hor jarraitzen dugu, askorentzat irrealak diren kanon batzuei jarraika, gure osasuna galduz

Amaitzeko esan horrelako hausnarketak egiteaz gain, gai teknikoagoez ere hitz egingo dudala (elikadura hilerokoaren zikloan, nola prebenitu anemia elikaduraren bitartez, elikaduraren inguruan ditugun mitoak...), eta bi gauzen arteko oreka topatzen saiatuko naizela. Bitartean, izan aske!

ZIENTZIA IKASGELETAN

Bigarren hezkuntzan, batxilergoan edota lanbide heziketan zientzia ikasgaiak emango dituzten irakaslegaiak prestatzeko masterra eskaintzen du UEUk; Josu Lopez-Gazpio bertan aritzen da irakasle eta zientzia ikasgaien didaktikan sakontzeko egiten duten lanaz aritu da

Jon Miranda

Eskualdeko erronka nagusien artean jarri du Tolosaldea Garatzenek gazteak zientzia eta teknologia gaietara gerturatzea. 2021. urte hasieran Elhuyarrek ZTIAM (zientzia, teknologia, ingeniaritza, artea eta matematikak) gaien inguruan DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek duten pertzepzioari buruzko galdeketa egin zuen, eta oro har, emaitzek erakusten dute zientzia arloko ikasgaiekiko interes maila baxua dutela eskualdeko gaztetxoek.

Josu Lopez-Gazpio (Tolosa, 1987) zientzialari, irakasle eta Tolosaldeko Ataria-ren kolaboratzailearen ustetan zaila da 12 eta 18 urte arteko ikasleen artean zientzia gustuko duen norbait aurkitzea: «Gehienei zientzia aspergarria egiten zaie, kontzeptu zailak lantzen direnaren ustea dute eta urrutikoak egiten zaizkie gai hauek». UEUk, EHUren zentro atxikiaren bidez, euskaraz eta *online* eskaintzen du irakasleen prestakuntza masterra eta bertan irakasle dabil Lopez-Gazpio. Master honek DBHko, Batxilergoko eta

Bizilaben aritzen diren gaztetxoen esperimentu bat. **JOSU ARTUTXA**

Lanbide Heziketako irakasle izango direnak prestatzea du helburu espezialitate hauetan: Natur Zientziak eta Matematika; Giza eta Gizarte Zientziak eta Hizkuntza eta Literatura.

Bigarren hezkuntzan ere aritu izan da aurretik Lopez-Gazpio eta ikasleek duten erreferentzia faltaz hitz egin du: «Pentsatzen dute zientzialaria izaten dela laborategian sartuta egoten den pertsona bat, beste bizitzarik ez duena». Hori ez da horrela, ordea, eta ikuspegia aldatu beharra dagoela uste du tolosarrak. «Jakin-mina piztu behar zaie ikasleei txikitatik. Saiatzen naiz masterrean irakaslegaiei hori transmititzen, zientzia beste modu batera irakatsi daitekeela, ez duela zertan terminologia zailekoa izan behar. Zientzialariok eskuartean erabiltzen ditugun gaiak eguneroko bizimoduan eragina dute. Aktualitatearekin zerikusia duten eta hedabideetan agertzen diren albisteak erabili daitezke, adibidez, biologia, kimika edota matematika esplikatzeko».

> «Kontzeptu zailak lantzen direnaren ustea dute eta urrutikoak egiten zaizkie gai hauek»
> **JOSU LOPEZ-GAZPIO**

Zientziaz asko, ez beti ondo

UEUk antolatzen duen irakaskuntza masterrean natur zientziak eta matematika arloko koordinatzailea da Lopez-Gazpio eta irakaslegaien praktikaldiko arduraduna. Zientziaren didaktikaz maila teorikoan gauza asko landu diren arren, uste du oraindik ere bide luzea dagoela egiteko. Proiektuka lan egitea eta eguneroko gauza praktikoekin –kutsadura, genetika, bioteknologia– zientzia gaiak lotzea aipatu ditu adibidetzat.

Fisika eta kimikaren irakaskuntza, matematikaren irakaskuntza eta mundu garaikiderako zientzia ikasgaiak irakasten ditu Lopez-Gazpiok masterrean. «Kultura zientifikoaren falta badago eta kultura hori txikitatik, landu beharra dagoela uste dugu. Gaur egun gai zientifiko horietan sakontzeko interes falta sumatzen da gizartean, jendeak gai konplexuegiak direla pentsatzen duelako, edo askotan ez direlako ongi azaltzen. Baina interesik azaltzen ez badugu, erabakiak beste batzuk hartuko dituzte gure partez. Energia nuklearra eta energia eolikoaren artean zein diferentzia dagoen ez badakigu, energia motaren inguruan erabakiko dute eta guri ez zaigu beste erremediorik geratuko, geroz eta garestiago kobratuko diguten elektrizitate faktura ordaintzea baino».

Kultura zientifikoak jarrera kritikoa edukitzea eta metodo zientifikoan oinarritutako argudioak eskatzen ditu. Azkeneko urte eta erdian koronabirusak eragindako pandemian horrelakoen falta sumatu du Lopez-Gazpiok: «Gauzak ez dira behar bezala egin. Jendeak interesa

Fleming herri eskolako ikasleak zientziaren inguruko jakingaiak lantzen. **ATARIA**

agertu du eta gauza asko argitaratu da komunikabideetan baina askotan ez dakit ulertu ote den zientziak bestelako moduak dituela lan egiteko. Zientzia ez da titular handietarako, denbora behar duten ikerketak eskatzen ditu, baieztapen bat berrestea kosta egiten da. Konplikatua da ondorio batzuetara iristea, kontsentsu zientifikoa behar da eta momentuan argibideak ezin emateak ez du esan nahi zientziak gaizki funtzionatzen duenik, bere denbora behar duela baizik».

Asko hitz egin da pandemiaz, baina ez beti ongi. Horrela uste du zientzialari tolosarrak: «Komunikazio arazo bat egon da. Gehiegizko informazioa eman da, askotan kontrastatu gabekoa. Berehala albistea eman behar horrekin ez dira gauzak ondo azaldu eta datu asko eman dira testuingururik gabe, modu nahikoa alarmista eta sentsazionalistan». Egoera horri aurre egiteko kultura zientifikoa zabaldu beharra dagoela argi ikusten du Lopez-Gazpiok. «Agian ez kimikako formulazioa, baina metodo zientifikoa zer den eta zientziaren araberako zentzu kritiko bat edukitzea zer den jakitea garrantzitsua da. Guztiontzat da beharrezkoa, ez bakarrik zientzietako ibilbidea aukeratuko duten ikasleentzat, baita gizarte gaietan arituko direnentzat ere».

> «Hedabideetan agertzen diren albisteak erabili daitezke, adibidez, biologia, kimika edo matematika esplikatzeko»
> **JOSU LOPEZ-GAZPIO**

Masterrean formazioa jasotzen duten irakaslegaiak etorkizunean bigarren hezkuntzan, batxilergoan edo lanbide heziketan arituko dira irakasle. Asko emakumeak. «Gure masterrean izena ematen dutenen artean gehiengoa emakumeak dira. Badirudi estereotipoek zaintzara eta irakaskuntzara bideratzen dituztela emakumeak eta ez hainbeste ikerketara edo enpresa mundura». ZTIAM gaien inguruko galdetegian ere, nabarmen geratu zen genero-estereotipo tradizionalek gazteek duten interesean eragina dutela. Oro har, neskek interes handiagoa erakusten dute gai desberdin ugaritan, eta mutilen interesa askoz ere fokalizatuagoa dago. Nesken intereseko gai ugari horietan, toki txikia hartzen dute zientziak eta teknologiak; mutilen interesetan, ordea, handia. Neskek biologian eta kimikan dute interesik handiena; mutilek, aldiz, teknologian eta informatikan. «Emakume zientzialarien erreferentzia falta ere badute ikasleek eta hezkuntza arautuan erreferente horiek ezagutaraztea ere bada etorkizuneko irakasleen eginbeharra», dio Lopez-Gazpiok.

UEUk antolatzen duen masterrean izena ematen dutenen profilari begiratuta, irakasle tolosarraren iritziz, asko dira behin gradua amaitu eta ikerketa munduan edo enpresa munduan ibilbidea egin ondoren irakaskuntzaren leihoa zabaldu nahi dutenak. «Ikerketan jarraitzeko askotan ez dute baldintza egokirik izaten eta irakaskuntza bada irtenbide egokia euren bokazioarekin jarraitu ahal izateko». Hori, Lopez-Gazpiok berak egiten duen bezala, dibulgazioarekin tartekatuta.

JON UMEREZ
FILOSOFIA, EHU

Kultura zientifikoa edo zergatik fidatu zientziaz

Zientziarekin eta teknikarekin zerikusia duten erronka ugari ditugu erantzun beharrekoak, norbanako gisa eta gizarte mailan ere. Saihestu ezin ditugun hainbat arrisku eta aukera; beldurra eta itxaropena sortzen dituztenak; dela etorkizun oparoa agintzen digutenak, dela hondamendi tamalgarria iragartzen digutenak.

Beste askoren artean (adimen artifiziala eta robotika, esku-hartze genetikoa, ...), oraindik pairatzen gauden COVID pandemia eta klimaren larrialdia bereizi ditzakegu, ezin ukatuzkoa duten larritasun eta gaurkotasun nabarmenagatik bederen. Baina bi ezaugarri horiez gain, batere originalak ez diren adibide hauek aukeratzeko beste arrazoi bat ere badago: aukera paregabea ari digutelako ematen zientzia martxan ikusteko (*science in action*). Jendaurrean eta eztabaida publikoan inoiz baino gehiago zientziaren ezaugarriei buruz hausnartzen ari garelako. Zientziak (eta teknikak) gizartean eta gugan duen edo izan dezakeen eragina zuzenean nozitzen eta aldi berean aztertzen ari garelako. Eta, azkena baina ez garrantzi gutxiagokoa, zientzialariek edo adituek esaten eta aholkatzen dutenaren aurrean jarreraren bat hartu behar izan dugulako (neurri batean bederen). Ia inor salbu geratu gabe. Bazter geratu ezin: «Ez dakit», «Ez daukat iritzirik», «Ez dagokit» gisako irtenbide ohikorik gabe. Okerrago gainera, entzuten ditugun ahotsak, ustez behintzat, ugariak eta askotarikoak omen direnean, kontrajarriak ere batzuetan. Nori entzun? Nortaz fidatu? Nori sinistu? Zertan datza gai hauetan pentsamendu kritikoa izatea?

Kinka honetan lagundu ahal diguna, hain zuzen ere, kultura zientifikoa da. Eta zer da, bada, kultura zientifikoa? Zientzia arlo ezberdinetako teoria edo eduki asko ezagutzea? Fisika, Biologia, Soziologia, Psikologia eta abar menderatzea? Jakina, posible den neurrian, hori ere. Baina ez hori derrigorrez eta ezta hori nagusiki ere. Guztiok lortu eta garatu dezakegun kultura zientifiko oinarrizkoa zientziak nola funtzionatzen duen jakitea da, zientziak esaten duena nola arrazoitzen duen jakitea, zientziak proposatzen dituen hipotesiak nola ebaluatzen dituen jakitea. Beraz, kultura zientifikoa, ezagutza zientifikoa nola eskuratzen den eta nola neurtzen den ulertzean datza. Laburbilduz: justifikazioa eta izaera kolektiboa. Hau da zientzien baieztapen orok neurriko justifikazio egiaztagarri eta esplizitu bat erakutsi behar du eta horien onarpena eta balioa adostasun zabala sortzen duen prozesu kolektibo baten emaitza da.

Horregatik hartu dezakegu aintzat lehenik zientziak dioena eta ez ordea neurri berean beste iturri batzuek diotena.

Baliabidea: Zientzia Kultura Masterra (*https://scientia.eus/eu/aurkezpena/*).

Ainara Otamendi

ZIENTZIALARIA ETA IRAKASLEGAIA

Iazko ikasturtean egin zuen irakasleen prestakuntza masterra UEUn. Kimikako gradua du Ainara Otamendi Elizaldek (Ibarra, 1992) eta tesia prestatzen ari zela egin zuen masterra *online*. «Ez direnez aurrez aurreko eskolak izaten, aukera izan dut ikasketa horiek eta tesiaren bukaera uztartzeko».

Irakasleen prestakuntza masterrak aukera eman dio ikastetxe barruko funtzionamendua ezagutzeko. «Askotan ematen du irakastea gauza erraza dela, baina atzean lan handia dago. Curriculumak, maila bakoitzean egiten diren eskakizunak, helburuak... Konturatu naiz atzean lan handia dagoela, ez dela zeregin erraza eta eginkizun potoloa dela irakaskuntzarena». Masterrean eduki teorikoez gain, zortzi asteko praktikaldia egiteko aukera izaten dute ikasleek. Villabonako Erniobea BHIn aritu da Otamendi martxotik maiatzera, fisika eta kimikako eskolak ematen DBHko 2, 3, 4. mailetan.

«Oso gustura aritu naiz eta ondo moldatu naiz nire tutorearekin eta baita ikasleekin ere», esan du irakaslegai ibartarrak. Sumatu du zientzia gaiekiko ikasleek «beldurra» izaten dutela askotan. «Ni ikasle nintzen garaitik gauza batzuk aldatu dira baina beste batzuk ez. Materia berdintsuak jorratzen dira eta pena ematen dit nola jarraitzen dugun edukiak memorizatzen. Uste dut teknologiak aurreratuta daudela gaur egun eta eduki horiek barneratzeko beste modu batzuk erabili daitezkeela».

Ikasleek nahiago dituzte esperimentuak eduki teorikoak baino. Manipulatzeak, errealitatean zientzia non dagoen ikusteak, gerturatu egiten ditu zientziara. Otamendiren ustetan, ordea, irakaskuntza prozesua ez da praktika horietan oinarritzen, eduki teorikoaren «osagarri eta lagungarri» bezala ulertzen dira ia beti: «Irakasleek aipatu izan dizkidate denbora eta baliabide falta horrelako jarduerak antolatzeko. Eduki teorikoen zurrunbilo horretan sartzen dira eta aukera gutxi izaten dute bestelako metodologiak probatzeko. Kanpotik esatea erraza da, baina praktikaldian eskolak eman nituenean ni neu ere dinamika horretan sartu nintzen. Zaila da horri ihes egitea».

Unibertsitatean ikertzen jarraitzen du Otamendik eta gustatuko litzaioke zientziaren atzean ikerlari bezala ezagutu duen mundu hori irakaskuntzara eramatea. «Konpetentzia eta gaitasunez asko hitz egiten da irakaskuntzan eta iruditzen zait zientzialari batek egunero egiten dituen jarduerak oso lotuta daudela horrekin. Arazo bat aztertu, ikertu, hipotesiak sortu eta behatu egiten dugu ikerlariok. Pentsatzeko modu bat dakar metodo zientifikoak eta pertsona bezala hiritarrak hezteko balore batzuk transmititzeko balio duela uste dut».

Egunerokotasunera hurbildu

Egunerokotasunean oinarri zientifikoa duten gai asko sortzen dira eta eskoletan horiei heltzeko proposamena luzatu du Otamendik. Kultura zientifikoa garatzeko abiapuntua ikasgelak behar duela uste du. «Oinarri zientifikoa baliagarria da ikasleek iritzi kritikoa landu dezaten. Orain pandemian, adibidez, irakurri izan ditugun titular sentsazionalistek erakusten dute, horrelako gaiak txikitatik landu beharra daudela ikasgelan», dio zientzialari eta irakaslegai ibartarrak. Edukiak nola irakatsi aztertzeaz gainera, zein eduki klase landu beharko liratekeen ere aztertu beharra dagoela dio Otamendik: «Berriz begiratu beharko lirateke horrelako gauzak, urteotan ez baitira gauzak asko aldatu. Pentsatu beharko genuke gutxieneko zein jakintza eduki beharko luketen gure gaztetxoek. Formulazioa eta nomenklaturak ematen ditugu, burdin oxidoa esaten dakigu baina gero ez dakigu hori herdoila dela. Errealitatean zein erreakzio kimiko ematen diren erakutsi beharko genuke. Ikasleengana gerturatu eta egunerokora hurbildu behar dugu zientzia».

Bizilabe egitasmoaren barruan Elhuyarrek ZTIAM gaien inguruan DBHko ikasleen galdetegia oinarri hartuta Otamendik master amaierako lana prestatu du, «justu buelta emanda, ikasleei beharrean eskualde ikastetxe ezberdinetako irakasleei galdetuta». Besteak beste, bere usteak berretsi dituzte zientzietako ikasgaiak ematen dituzten irakasleek: «Aipatu didate edukiak emateko denbora falta, curriculuma zabalegia dela, gauzak ondo ezin emanaren presioa sentitzen dutela eta bestelako baliabideak erabili daitezkeen arren harrapatuta sentitzen direla bere eguneroko lanean». Urte hasieran Elhuyarrek ezagutzera emandako datuek zioten genero-estereotipoek indarra dutela gaztetxoek dituzten interesetan. Harago jo du Otamendik: «Gehien kezkatzen nauena da neskek ez dutela beren burua gai ikusten zientzia edo teknologien arloan aritzeko. Beldurgarriak dira portzentajeak. Oso adin goiztiarretan nabari da neskek fede gutxiago dutela beren buruarengan. Eta hori oso larria iruditzen zait».

> «Pentsatzeko modu bat dakar metodo zientifikoak eta hiritarrak hezteko balore batzuk transmititzeko balio duela uste dut»
> **AINARA OTAMENDI**

Otamendik berean jarraituko du behintzat: unibertsitatean ikerkuntzan eta irakaskuntzarako atea zabalik. «Iruditzen zait oraindik badudala ikerkuntzan ibilbide bat egiteko eta bertan ikasitakoa balia dezakedala etorkizunean irakasle izateko».



Iñaki Mendizabal

IRAKASLEA

Jesusen Bihotza ikastolan ikasle izan zen Iñaki Mendizabal Jauregui (Amasa-Villabona, 1977) eta haren oinordeko den Zubimusu ikastolan dabil irakasle. Ingeniaritza ikasketak egin ondoren, eta epe batean enpresa pribatuan jardun ostean, 2003-2004 ikasturtean hasi zen maisu lanetan. «Oso gustura nabil, uste dut urteek aurrera egin ahala deskubritu dudala nire benetako bokazioa. Ikasleekiko tratua gustukoa dut».

Bigarren hezkuntzan jarduten du irakasle zientzia arloko ikasgaietan. «12 eta 16 urte arteko gazteak dira, nerabezaroa bete-betean bizi dutenak eta haien interesak ez dira bereziki curriculumean datozenak. Horregatik guretzat erronka da haiengan gai hauekiko interesa piztea», esan du Mendizabalek. Bere iritzian, gaur egun, oraindik ere, zientzietako ikasgai gehienen oinarrian adierazpen matematikoa dago eta horrek berak ekartzen du gazte askoren mesfidantza ikasgai hauekiko: «Lehen Hezkuntzatik matematikek presentzia handia dute irakaskuntzan. Gainera, oso goiz hasten gara kontzeptu abstraktuak lantzen eta ume guztiek ez dute aldi berean abstrakzio maila garatzen. Une horretan atzera geratzen denak agian izan ditzake zailtasun batzuk eta ibili daiteke arrastaka zientzia arloko beste ikasgaietan ere».

Baina badaude alternatibak Zubimusu ikastolako irakaslearen iritzian. Dagoeneko zenbait ikastetxetan hasiak dira matematika manipulatiboa deitzen zaionarekin, ukigarriak diren elementuak erabilita erakusten dituzte ariketa matematiko oinarrizkoenak. Azkeneko urteetan ari dira pedagogiaren arloan aurrerapenak egiten baina oraindik ere aurrerapauso batzuk eman beharraz hitz egin du Mendizabalek: «Teknologia berriek, adibidez, asko errazten dute gure lana. Arbel digitalek, ordenagailu eramangarriek ikusgarriagoa egiten dute lantzen ari garen gaia. Gaur egun material asko dago ikus-entzunezkoetan oinarrituta eta horrek asko laguntzen die ikasleei. Gure garaiko klase magistralek dagoeneko ez dute funtzionatzen».

Mendizabalek aitortzen du gaur egungo irakaskun-

tza sistemak curriculum bat betetzera behartzen dituela irakasleak eta gehienetan «eskuak lotuta» egin behar izaten dutela lan. «Zorionez pixkanaka aldatzen ari da kontua eta konpetentzien lanketan jartzen da arreta gehiago. Uste dut, zientzia arloko irakasleok gehienbat dibulgatzaile izan beharko genukeela. Nik neure burua hor kokatzen dut. Gustatuko litzaidake nire lanak balio izatea ikasleei begiak irekitzeko eta zientziak zenbat gauzetarako balio duen erakusteko. Guztientzat oinarri batzuk ongi finkatu eta sakondu nahi duenarentzat bideak seinalatzea da gure lana».

Zubimusu ikastolako irakasleari askotan joaten zaizkio ikasleak ikasten ari diren horrek etorkizunean zertarako balioko ote dien galdezka. Mendizabalek beti egiten du saiakera esku artean duten gaia errealitateko gertakariekin edo fenomenoekin lotzeko. «Kimikan, esate baterako, gordina da formulazioa bere horretan, baina izugarri fenomeno pila gertatzen dira egunero kimikaren bitartez azaldu daitezkeenak. Uste dut horretan jarri behar dugula arreta».

Ikasleen gaitasunak lantzeko metodo zientifikoak berak balioa duela uste du Villabonako irakasleak. «Zientifikoen lan egiteko moduak berak eskatzen duela jarraitu beharreko metodologia bat, gaztetxoen bizitzarako ere baliagarria izan daitekeena. Hipotesiak planteatu, frogak egin, ondorioak atera... Bada metodologia bat zehaztasuna eta pazientzia eskatzen dituena, erantzunak ez direlako berehalakoan etorriko. Uste dut horrelako arloak lantzea ez datorkiela gaizki gaur egungo gazteei». Pentsamendu bat eta jarduteko era bat ere badakar berekin zientziak. «Askotan esaten dut ikasten irakasten diegula gure ikasleei. Uste dut lan ohiturak sustatzea ere badagokigula, antolatu eta gauzak modu ordenatuan egitea lagungarri izango zaie bizitza osorako».

> «Uste dut zientzia arloko irakasleok, gehienbat, dibulgatzaile izan beharko genukeela. Nik neure burua hor kokatzen dut»
> **IÑAKI MENDIZABAL**

Hezkuntza integralaz

Gustura dabil zientzia arloko ikasgaiak irakasten baina arreta jarri nahi izan du heziketa integralean. «Euskal Herrian bizi izan dugun industrializazioagatik, ibilbide akademikoan pisu handia hartu dute zientzia arloko ikasgaiek eta ikasgai teknikoek, eta uste uste dut sormenarekin eta artearekin loturikoei ez zaiela hainbeste arreta jarri. Aurrerabidea beti dator gure mugak gainditzetik eta harago joan nahi izatetik. Ezagutzen ez dugunaren bila aritzea bada zientziaren eta beste hainbat arloren ezaugarria. Etengabeko bilaketa prozesu hori da gakoa».

Etorkizuneko herritarrak izango direnak heztea ez da soilik hezkuntzan aritzen diren profesionalen ardura, baina arduraz hartzen du Mendizabalek bere lana. Jakintza zientifikoa oinarri hartuta, autonomoak izango diren gaztetxoen bidelagun dihardu.

JOXE MANUEL ODRIOZOLA
GALTZAUNDIKO KIDEA

Iñaki Larrañagaren lorratzean

Iñaki Larrañaga Irizar (1933-2021) joan zaigu, euskal soziolinguistikaren baratze elkorra inor gutxik bezala landuta. Hizkuntzaren soziologian utzi digun uztaren arrastoa nonahi agertuko zaio euskararen ikerketa arlo horretan ezer arakatu nahi duenari. Kike Amonarrizek dioen moduan, «Iñaki Larrañaga izan zen soziolinguistika aplikatua Euskal Herritara ekarri zuen pertsona». Soziolinguista izateaz aparte, apaiza eta soziologoa ere bazen lazkaotarra.

Artikulu honetan *Euskara gizarte bizitzan* (1984) liburuxkako Larrañagaren hainbat ideia aletuko ditugu. Liburuxkaren jatorrian Tolosako Udaleko Euskara Batzordeak antolatu zituen jardunaldi batzuk daude: *Tolosan Euskaraz*. Batzordeko kideek orduan adierazi zutenez, ekitaldiaren arrakasta ez zen nolanahikoa izan: «Leidor zineman, 1.700 ikasletik gora bildu ziren bi hizlariak entzuteko». Larrañagarekin batera, Lluis V. Aracil soziolinguistak parte haurtu zuen hitzaldi hartan.

Garai hartako pentsamenduaren lagin xumea da ondokoa; garbi ikusten da euskararen aterabidea klase sozialekin lotzeko joera genuela. Larrañaga galdezka datorkigu: «Nori interesatzen zaio euskararen errekuperazioa? Ez kapitalari, ez oligarkiari, garbi dago. Are gutxiago oraindik, goi mailako ekonomia egituran, multinazional eta nazioarteko kapitalaren mugimenduari. [...] Nork du orduan interesa? Langileriak. Bere askatasun osoa lortu ahal izateko, gainerako zapalkuntzetatik bezala, hizkuntzaren zapalkuntzatik askatu beharko du, eta hori ez dute erregali modura eskainiko, borrokaren ondorioz baizik».

> «Nori interesatzen zaio euskararen errekuperazioa? Ez kapitalari, ez oligarkiari, garbi dago»
> **Iñaki Larrañaga**

Euskal feminismoaren adar euskaltzaleak orain antzeko gauzak esaten ditu, zapalkuntzen izenak eta izanak gehituta. Larrañagak klase arazoarekin uztartu nahi zuen euskararen zoria, orduko euskaltzaleok egiten genuen ildotik. Ez dut uste gure pentsamendu soziolinguistiko hura oso emankorra zenik, gero ikusi dugun moduan. Baina orduan gauzak horrela ikusten genituen, eta Larrañagaren lekukotasunak ondo islatzen du orduko giro ideologikoa.

Ideia estrategiko orokorretik jaitsi gaitezen Tolosaldeko egoera soziolinguistiko zehatzera. Larrañagak dioenez, «Tolosaldean euskaraz hitz egiten duen jendea, % 65 ingurura iristen



bada ere, euskararen erabilera zero ingurura jaisten da: batzarretan, batzordeetan, euskara ez da erabiltzen –ez luzatzearren, denborarik ez dagoelako–, nahiz eta han dauden langileetatik erdaldunak ehuneko hamar izan, edo gutxiago; kontraesan batean erortzen gara, hortaz; etxeko bizitza, lagunarteko bizitza, herriko bizitza euskaraz, eta laneko bizitza, egunean zortzi-hamar ordu erabat erdaraz. Badirudi lantokian sartzean, gure nortasuna, txamarraren antzera, sarreran uzten dugula eta han gauden bitartean ez garela euskaldunak».

Orduko egoera ikusita, euskaltzaleon ustea, gero ustela atera den ustea, honakoa zen: euskararen erabilera formalak, hots, gizartearen egitura eta esparru sozial eta kultural formal batzuetan (hezkuntza, administrazioa...) erabiltzeak gure hizkuntza nazionalaren izena eta izana hauspotuko zituela. Orduko helburu batzuk mamituta ikusi ditugunean ohartu gara, ordea, gauzak ez direla horren errazak, eta euskararen erabilera formal ez-hegemonikoak ez duela behar genuen iraultza soziolinguistikorik ekarri. Are okerrago, orduko erabilera informal arrunt egunerokoak indarra galdu du eremu formaletako aurrerapenak gorabehera.

> «Zein hizkuntza erabili behar den ez du norbanakoak erabakitzen, ez da pertsonaren esku dagoen zerbait»
> **Iñaki Larrañaga**

Ezin bukatuko dugu Larrañagak behin eta berriz azpimarratzen zigu-na aipatu gabe: «Zein hizkuntza erabili behar den ez du norbanakoak erabakitzen, ez da pertsonaren esku dagoen zerbait. Sozialki eragiten duten mekanismoen baitan dago erabileraren gako nagusia».

Gazte kriminalak

MANEX GURRUTXAGA MUÑAGORRI
SOZIOLOGOA

Azken hilabeteotan prentsari adi egon denak eta alderdi politikoen matraka jarraitzeko adorea izan duenak pentsa lezake COVID gaitza gazteriak sortua dela, edo behintzat bera dela bizi dugun egoera kaskarraren erantzulea. Botiloia eta parranda dira, antza, arazoaren erroa. Gure borondate guztiarekin gaitzetsi eta poliziak gazteria egurtzea begi onez ikusi behar omen dugu, etika eta ongizate kolektiboaren aurkako jarduerak baitira, indibidualismotik eginak.

Benetako erantzuleak baina, birusaren zabalpenari eta horren mota askotako ondorioei aurre egiteko boterea eta baliabide guztiak izan eta interes partikular, elektoralista edo ekonomikoen arabera jardun dutenak dira eta ez kudeaketa interesatu hori dela eta, aisialdiaz, hala moduz eta zertxobait gehiago, gozatu nahi dutenak. Horra hor benetako indibidualismoa.

Alderdi politikoentzat ordea, errentagarriena eta errazena fokua gazterian jartzea izan da. Alderdiekiko eta estatuaren errepresentazio sistemarekiko atxikimendu gutxienetakoa duen sektorea eta abstentzio maila altuenetakoa duen sektorea da gazteena. Horren jakitun izanda, beste alde batera begira jarri dira alderdiak: gazteriaren kriminalizatzeari ekin diote, bidelagun leialak dituzten komunikabideen laguntza ideologikoari esker, eta helduagoen «erantzukizunaren botoak» euren artean lehiatu nahi izan dituzte, azken urte eta erdian beldur irrazional eta neurrigabea sustatzeari esker, gazteriaren kontura. Tartean, EAJ eta EH Bildu.

Ez ote zaie baina kalkulua oker aterako? Etorkizun ezegonkor eta ziurgabeak zein miseriaren mamuak mehatxatzen dituen gazteriaren egunerokoari gero eta debeku, zailtasun eta askatasun murrizte gehiago ezartzeak, eta gainera kriminalizazio etengabe bat sustatzeak zein ondorio izan ditzakeen ikusteko dago. Epe motzeko zenbait erreakzio ezagunak ditugu eta gazteen gaixotasun psikologiko eta suizidio tasen gorakada ikaragarriak, agian, guzti horrekin zerikusirik izango du, baina epe ertain-luzerako ondorioak oraindik ez ditugu ezagutzen.

Agian, langile klaseko gazteen aurkako gurutzada berri hau sustatzen ari diren horiek etorkizuneko gizarte otzana eta esanekoa sortzea esperoko dute debeku, interbentzio ideologiko eta poliziaren pilotakaden areagotze horren bitartez. Badaezpada, etorkizuna miseriazkoa bada, protestarako ideia eta gaitasunik ez duen gazteria eraiki nahiko dute agian. Baina kontrako efektua ere izan dezake eta mendekotasuna eta obedientzia areagotu baino, kritikotasuna zein estatua eta bere egiturekiko atxikimendu ezaren jarrera zabaltzeko baldintzak ondu ditzake.

Alderdi politikoentzat ordea, errentagarriena eta errazena fokua gazterian jartzea da

Puntuka jositako ipuinak

MADDI AMIANO ALLUE
IRAKASLEA

Amonak izugarri maite ditu dortokak, Garikoitzek bezainbeste ziur aski. Eta biloba *piccolo* etxera iristen denerako buruari buelta eta buelta ibiltzen da honi zein ipuin kontatuko. *Madoooona!* Gaurkoan bat berezia nahi duela ari da pentsatzen amona, Toscanan egiten ikasitako *antipastia* jatez amaitzen duen bitartean. Bost urte betetzeak merezi duen adinakoa...

Jada bere bilobak badaki gure arbasoen kulturan dortokaren oskolak ama-lurra sinbolizatzen duela, eta honakoa hamahiru zatitan banaturik dagoela, ilargiak urtean dituen hamahiru aroak bezalaxe. Eta baita hainbeste denbora lurrean igaro izateak oso animalia burutsuak egiten dituela. Eta erlijio Budistan dortoka txiki bat erraldoi batean berraragiztatu zela, itsasoan ito beharrean zeuden marinelak hondartza ertzeraino oskol erraldoian emanda salbatzeko. Asko daki nire bilobak!

Amonak dio azken ipuin hau duela gogokoen Garikoitzek. Baina gaurkoa bereziena izango den errezeloa du amonak, josteko makinari zarata bizia ateratzen dion bitartean. Bien bitartean balkoitik begira dirauen Alde Zaharreko Abuztuaren 31 kaleak lasaitasuna ematen dio. Tarteka atzera egin eta Donostian suak kiskali ez zuen kale bakarra izateak nostalgia zein harrotasun punttu bat ematen baitio amonari. Frantses okupazioa eta tropa anglo-portugesengandik urrun zein salbu sentitzen da amona. Gainera, eguraldiak laguntzen badu, josteko makinaren mahaia leihora gerturatzen du amonak, eta hanketan eguzkiak jotzen dionean jojoba olioa igurzten du azala leun eta gazte manten dezan. Makinaren laguntzaz egindako azkena berriz, Garik eskolara hamaiketakoa eramateko zorrotxoa izan da, gaur gauean labean jada usaina darion txokolatezko bizkotxoarekin batera oparituko diona alegia.

Tripa bapo beteta, amonaren amantalean tiraka dirau Garik. Lo hartu aurreko ipuinaren zain dago. Amonak halabeharrez honela dio: -Badakizu Australian bazela Tiddalik izeneko dortoka bat ezta? Ba honek izuuuuugarrizko egarriak izaten zituen. Eta beste animaliak baino ur kantitate askoz ere handiagoak edaten zituen. Halako batean, beste animaliak ur falta sumatzen hasi ziren. Eta animalia guztiek bilera luuuuuze bat egin zuten euren ur falta asetzeko zer egin pentsatuz. Halako batean, delfinak ideia paregabe bat izan zuen. Dortokari isatsean kili-kiliak egitea edan zuen ur guztia bere ahotik atera zedin. Keinu horrekin, dortoka parrez lehertzen hasi zen eta edan zuen ura bere ahotik ateratzen hasi zen itsaso zein errekak urez betez...

> Jada bere bilobak badaki gure arbasoen kulturan dortokaren oskolak ama-lurra sinbolizatzen duela, eta honakoa hamahiru zatitan banaturik dagoela, ilargiak urtean dituen hamahiru aroak bezalaxe.

Itsasoa entzunarazten dion maskorra eskuin belarrian estu helduz, eta bestetik amonaren ipuin goxoa entzunaz hartu du lo Garik. Amonak ere pozez txoratzen hartu du erretiroa. Aldenik alde ageri zaion irribarreak ageri du bilobak jasotako oparirik gustukoena bere ipuina izan dela. Arropa eranzten duen bitartean amonak marmarrean zera dio: *–Izan e oaingo makinak eta ixtorik, goxo lo itteko ipuin goxo bat kontatzea bezelakoik eztao...*

Amona, zuk bai jakin!

BEÑAT SALBARREDI
HARITUZ-EKO KIDEA

Argitasun eza

Doinua Sentimentua sartu zitzaidan

Argi-indarrak duen joera ulertzen ez da erreza berdin-berdin du izan Naturgy, Iberdrola edo Endesa balekite hau dena ordaintzen zeinen den zail ta nekeza goi-kargu hauek duten logika noizbait uler ahal baneza jende xehea konprenitzeko duten argitasun eza.

AGENDA

OSTIRALA
IRAILAK 24

ALTZO
IPUIN KONTAKETA

Klima aldaketaren inguruko ipuinak. Yolanda Arrieta ipuin kontalariak Imaz Bertsolaria Eskolako haurrei klima aldaketaren inguruko ipuinak kontatuko dizkie.

HITZALDIA

18:30. *Basoak, aldaketa klimatikoaren aurkako lanabesak* hitzaldia. Garazi Auzmendik basoek klima larrialdiari aurre egiteko duten potentziala azalduko du. Ondoren, Joseba Garmendia Altzoko basoen egoeraz eta beraien multifuntzionaltasuna handitzeko proposamenez arituko da. Batzarremuñon.

AMASA-VILLABONA
KONTZERTUA

19:30. Idoiak eskainitako kontzertua, *Ilun eta abar*. Sarrera doan. Kontzertua Erreboteko plazan izango da.

AMEZKETA
ATE IREKIAK

Gaztelekua ezagutzera emateko ate irekiak egingo dituzte gazteei eta beren gurasoei begira.
17:00-17:30. DBH 3.
18:00-18:30. DBH4.

ANOETA
GURETZAKO GUNEA

15:00. Jatorri anitzeko emakumeen bilgune. Udaletxean.

DOKUMENTAL PROIEKZIOA

18:00. *Mendian hil, hirian hil* dokumentalaren proiekzioa. Mikelasagastin. Gonbidapenak liburutegian.

ASTEASU
TAILERRA

17:00. Bizikletak konpontzeko ikastaroa. Plazan baina euria egingo balu, frontoian. Ohikoenak diren matxurak konpontzeko oinarrizko mekanika ikastaroa gaztetxoentzat. Bi eskainiko dira, ordu t'erdiko iraupenekoak. Aurrez izena eman beharko da udaletxean.

IBARRA
PINTXO-TERTULIA

18:00. 2022an Ibarran ospatuko da Kilometroak festa, eta lantzen hasteko, pintxo tertulia antolatu dute. Plazako aterpean.

LARRAUL
TAILERRA

17:00. Kokedama tailerra, Olivia Sanchezekin. Mendi buelta txiki bat emango da materiala jasotzeko, eta ondoren teknika japoniarrari buruzko praktika egingo da elkarte atzeko mahaian.

TOLOSA
ZINEA

19:00. *Maixabel* pelikularen proiekzioa. Saio berezia. Bonutik kanpo. Leidorren.

KONTZERTUAK

19:30. Iker Pirisen emanaldia, Saikin gastrotekan.
20:00. Willis Drummond-en kontzertua, zezen plazan. Sarrerak *Kulturaplazara.eus* webgunean.

TOLOSALDEA
ELKARRETARATZEAK

Herriz herri eta plazaz plaza elkarretaratzeak egingo dituzte presoen eskubideen alde.

LARUNBATA
IRAILAK 25

ALKIZA
KONTZERTUA

18:30. Luberri abesbatza Ur Marako basoan. Gidoia eta narrazio lanak Juan Kruz Igerabidek egingo ditu, pianoan Marian Iriarte izango da eta Junkal Guerreroren zuzendaritzapean ariko dira. Sarrera doakoa da, baina tokia erreserbatu beharra dago *urmara.alkiza@gmail.com* helbidean.

ALTZO
DANTZA IKUSKIZUNA
19:00. Verdini dantza taldearen emanaldia. Plazan, eguraldi txarra bada eskolako jolastokian.

ANOETA
TAILERRA
10:00. Xaboi naturalak egiteko tailerra. Gela balioanitzean, doan. Izen-ematea *kultura@anoeta.eus* edo liburutegian.
HERRI BATZARRA
10:30. Anoetako EH Bilduren herri batzarra. Balio anitzeko gelan.

BEDAIO
AZKEN MUGA
18:00. Et Incarnatus eta Donostiako Orfeoiaren kontzertua. *Izpirituzkoa&herrikoia*. Beharrezkoa da lekua erreserbatzea Azkemuga.eus-en. Euria eginez gero, Amezketako elizan eskainiko dute.
19:00. Garoa sariaren sari ematea. Aurten, Araitz-Betelu bailarako hiru emakumeri emango diete Garoa 21, beren bizitzan kulturaren alde egindako lanagatik. Zarateko lepoan.

IBARRA
IRTEERA
09:00. Bizi-nahi Elkartearen ikasturteko lehen irteera. Irun, Bera eta Hondarribia bisitatuko dituzte.

IRURA
GAZTEAK DANTZAN
09:00. Irurako Gazte Asanblandak antolatuta. Goizean zehar Gazte Asanbladako kideak herrian zehar dantzan ibiliko dira.
13:00. San Migel plazan dantza soka egingo dute.
SCAPE ROOM ETA ZIRKO TAILERRA
11:00. *Scape room* eta zirko tailerra. Irura Bizi elkarteak antolatuta. LH3-DBH1 bitarteko gazteei zuzendurik. Bitartean, gainontzeko partaideak zirkoan murgilduko dira eta bertako materialez gozatzeko aukera izango dute Txatxilipurdi elkartearen eskutik. Frontoian.
KONTZERTUA
20:00. Travellin' Brothers taldearen kontzertua. European Blues Challenge Bruselan 2015ean irabazitako taldeak, zortzikote moduan *1001 nights* izeneko diskoa aurkeztuko du. San Migel plazan.

TOLOSA
MUGIKORTASUN ASTEA
10:00-14:00. Bigarren eskuko azoka, Zumardiandian.
10:30. Mendi bizikleta txangoa.
12:00. Mekanika tailerra.
MINTZAPOZA TONBOLA
11:00-13:30. Hainbat sari lortzeko aukera izateaz gain, giro politean mintzalagun egitasmoari bultzada bat emateko aukera egongo da. San Frantzisko eliza parean.
BISITA GIDATUA
11:00. Tolosako Azokak antolatuta, eta azokako laguntzat soilik, bisita gidatua Isastegi sagardotegira.
KONTZERTUA
19:00. Audience taldearen kontzertua Bonberenean.
KULTURA PLAZARA
19:00. *Bonba bat naiz* antzezlana, Berazubin.

ZIZURKIL
ERRALDOI ETA BURUHANDIAK
11.30-13:00. Zizurkilgo erraldoi eta buruhandien konpartsa Joxe Arregi plazara aterako da, herriko haurrekin elkartzeko asmoz.

IGANDEA
IRAILAK 26

ALEGIA
AZOKA
11:00-14:00. XIV. Artisau eta Nekazal Azoka, plazan.

AMASA-VILLABONA
ANTZERKIA
19:30. Xake Produkzioak taldearen *Fadoak entzuten zituen gizona* antzezlana, Gurea antzokian.

Getari Etxegaraik zuzenduta eta Iñigo Aranbarri, Kepa Errasti eta Ane Gabarain aktoreekin.

AMEZKETA
IRTEERA

09:00. Arritzaga, Aralarko sustraia eta historia harrigarria izenburupean eta Asier Hilario geologo tolosarra gidari bezala. Minak bideko aparkalekutik, Beratzeaga zubia baino lehenago dagoena (*ETRS89 koordenadak: X=575729, Y=4765522, altuera=408 m*). Amezketarrek izango dute lehentasuna parte hartzeko. Horretarako Amezketako udaletxean izena eman beharko da: 943 65 31 89.

ANOETA
KALEJIRA

12:00. Anoetako txistulari taldearen kalejira.

BEDAIO
AZKEN MUGA

Auzolana. Garbiketa.

BIDANIA-GOIATZ
UDAZKENEAN, KULTURA KALEAN

17:00. *Errimak bi oinetan*, garai bateko eta gaurko bertso eta doinuez osatutako dantza emanaldia. Haatik konpainiaren eskutik. Bidania-Goiazko herritarrentzat soilik antolatutako ekitaldia da. Bidaniako frontoi aurrean.

IRURA
IBILBIDEA

11:30. Irura Bizi elkarteak antolatuta. Irurako herria aitzinean, argazki eta istorio zaharren bidez, nolakoa zen ezagutzeko bigarren ibilbidea. Euskaraz, publiko guztiari zuzendurik. Agustinaneko plazako iturritik abiatuko dira.

BERTSO SAIOA

18:30. Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Uxue Alberdi bertslariekin. Eta gaiak jartzen Amaia Agirre izango da. San Migel plazan.

LEABURU-TXARAMA
DANTZA IKUSKIZUNA

18:30. Kimua dantza kolektiboaren eskutik, genero ikuspegiaren inguruan dantza ikuskizun originala bezain berritzailea: *genEroa*. Leaburuko pilotalekuan.

LIZARTZA
KIROL EKITALDIAK

11:00-13:00. Otsabio Kirol Elkartearen eskutik, Lizartza inguruko mendiak Otsabiok jarritako hamar mendien erronka egitea lortu dutenen sari banaketa.
13:00. Omenaldia Xubane Uribarrena arraunlariari.

ASTELEHENA
IRAILAK 27

IRURA
ODOLA EMATEA

16:30. Irurako Odol Emaileen Elkarteak antolatuta, odol emateak. Aldez aurretik txanda eskatu behar da, horretarako Gipuzkoako ordezkaritzatik emaile bakoitzari mezua bidaliko diote harremanetan jartzeko. Herri eskolan.

LIZARTZA

MANIFESTAZIOA

19:00. *Euskal Herria bihotzean, independentzia!* eskualdeko manifestazioa, Lizartzako plazatik abiatuta eta ekitaldia 19:30ean, plazan bertan. Sortuk deituta.

ZINEMA

MAIXABEL
Ostirala, larunbata,
igandea eta astelehena (19:00).
Igandea (16:00).
Bonutik kanpo.
Tolosa, Leidor.

Manex Iriarte, Arkaitz Balda, Araitz Uria eta Xabat Artola, Distopia elektrotxarangako kideak. **I. S. A.**

«Aurtengo uda hotza izan denez, kalean parez pare kontzertuak ematea da hurrengo helburua»

ARKAITZ BALDA, ARAITZ URIA ETA XABAT ARTOLA
DISTOPIA ELEKTROTXARANGAKO KIDEAK

Irati Saizar Artola

Tolosaldeko zazpi herrietako hamaika musikarik osatzen dute Distopia elektrotxaranga. Bai, hamaika dira eta 17 eta 22 urte artekoak dira denak. Horietako hiru dira Arkaitz Balda, Araitz Uria eta Xabat Artola. Uda honetan, inguruko herrietan ibili dira lehen kontzertuak eskaintzen, ez nahi bezala ordea, elektrotxarangak duen ezaugarri nagusiena, tabernaz taberna ibiltzearena, ezin izan baitute bete. Kontzer-

tuak lekutik mugiktu gabe egin badituzte ere, pozik daude momentuz egindakoarekin.

Aurkeztuko zenukete zuen taldea?

Xabat Artola: Tolosaldeko gazteak elkartu gara, musikariak garenak, eta gure helburua parranda giroa sortzea da eta bide batez guk ere ondo pasatzea, gure musikarekin eta gure musikaren bidez pentsaera mezu batzuk bidaliz.

Nondik dator taldea martxan jartzeko ideia?

Araitz Urkia: Berez, Manex eta Kepa taldekideak hasi ziren hitz egiten, talde bat sortzeko ideia baitzuten. Beraiek hasi ziren taldekideak aurkitzen, hasieran Villabona aldekoak batu ziren, eta ondoren hasi ginen besteak. Batxilergotik ezagunak gara asko, eta hortik hasi ginen elkartzen, musika inguruan zein zebilen jakiten, eta hortik osatu genuen taldea.

Lagun talde bat zarete, beraz.

X. A.: Bai, Manex eta Kepa txikitatik lagunak izan dira, eta gero batek kuadrillakori esan, beste lagun bat elkartu eta ikasketengatik ezagunak egin eta esaterako, Kepak bere beste musika talde batetik lortu ditu bi perkusio jotzaileak.

Eta elektrotxaranga bat osatu duzue. Zergatik formatu hori?

Arkaitz Balda: Taldekide bakoitzak beti izan du kalean jotzeko ilusioa. Gehienbat publikoarekiko gertutasun horregatik. Oholtza batean jotzea nahiko hotza egingo litzaiguke eta publikotik gertuago joaz gehiago disfrutatzen dugu.

Elektrotxaranga, normalean, tabernaz taberna ibili ohi da jotzen. Aurten parrandak falta dituzue.

A. B.: Aurtengo arazoa hori izan da. Gu elektrotxaranga bat gara, baina orain arte ez dugu eman kontzerturik mugimenduan. Orain arte guztiak geldirik jo ditugu, baina tira, hurrengo udari begira gogoz gaude mugimenduan hasteko.

A. U.: Hasiera batean, aurten kontzertuak eskainiko ote genituen edo ez erabakitzea kosta egin zitzaigun, bagenekielako ezingo genuela mugimenduan ibili. Erabaki bat hartu behar izan genuen eta baiezkoa izan zen, ikusten genuelako luzerako zihoala kontua.

Herriz herri ibili zarete udan. Zer moduzko uda pasa duzue?

X. A.: Publikoaren berotasuna behintzat jaso dugu. Antolatzaileek deitzen zigutenean ere babestuak sentitu gara, bazekiten hasiberriak ginela, lehen uda zela guretzat eta esku bat botatzeko prest izan dira beti. Entzutera gerturatu zaizkigunak ere uste genuena baino gehiago izan dira; jendea mugitu da gu ikustera eta alde horretatik gustura gaude.

Zer feedback jaso duzue? Jendeak gustura entzun zaituzte?

A. B.: Hor ere denetik egongo da, baina nik uste orokorrean, kontzertuak ematen hasi ginen momentutik beti izan dugula erantzun ona. Hemendik eta handik deika aritu zaizkigu kontzertuak emateko eta ezin gara kexatu.

Gazteak zarete denak. Atentzioa ematen du horrek?

X. A.: Kontzertuak eskaini ditugun herriak gertukoak

izan dira. Bazekiten zer sortu nahi genuen eta zertan genbiltzan, beraz, ez dakit inpresiorik eragin ote dien horrek. Hori bai, nahiz gazteak edo helduagoak izan, hamaika izate horrek inpaktua sortzen du. Izan ere hainbeste lagun koordinatzeko eta antolatzeko, jendeak bai galdetu digula ea ondo moldatzen ote garen. Gaztetasunagatik baino kantitateagatik gehiago harritu daitezkeela esango nuke.

Eta nolakoa da zuen antolaketa?

A. U.: Zaila da entseguetarako kointziditzea eta baita kontzertu baterako denok libre egotea. Bakoitzak gure bizitza daukagu taldetik aparte, jendeak konpromiso gehiago dauzka, eta entseguetarako astean behin elkartzea erabaki genuen, hori behintzat finkatuta utzi, eta gainerakoa hitzordu horren arabera antolatzen dugu. Kontzertuak ematerakoan ere, guztiok ematen diogu lehentasuna kontzertuari.

Non egiten dituzue entseguak?

A. B.: Alegian egiten ditugu entseguak. Hala hasi ginen eta bertako entsegu lokalean egiten ditugu beti.

Eta produktiboak izaten dira hainbeste lagunen artean?

A. B.: Egia esan, hamaika izanda zaila da entsegu guztia jotzen pasatzea. Gu ezagututa guztiak isilik egotea zaila da, baina entseguak denetarikoak ateratzen zaizkigu. Eta gogo aldetik ere nola gauden ikusi behar izaten da.

Zer instrumentu dituzue taldean?

X. A.: Bi perkusionista, bi gitarra, baxua, tronpeta eta tronboia, trikitia, pianoa, dultzaina eta bi ahots.

Instrumentu asko aipatu dituzue. Faltan botatzen duzue bakarren bat?

X. A.: Jaso ditugu proposamenak gure taldera sartzeko, baina hamaika lagun garenez beharrik ez dugu ikusten momentuz.

Hamaika musikari zarete. Inor ari da musika ikasketak egiten?

A. U.: Arkaitzek (Balda) musika teknikari ikasketak egin ditu.

X. A.: Besteok instrumentuak ikasten musika eskoletan aritu gara.

Zein da zuen errepertorioa?

A. B.: Orokorrean euskal musika jotzen dugu, parrandarako dena. Beti-betiko abestiak dira, mundu guztiak gurekin batera abesteko modukoak.

Eta nola aukeratzen dituzue abestiak?

A. U.: Hasieran, beste talde batek zerrenda bat eman zigun, betiko abestiekin. Horiekin hasi ginen, akordeak ere bagenituen eta aprobetxatu egin genuen. Baina gero denen artean hasi ginen zerrenda osatzen. Abesti asko, gainera, belarriz ateratzen ditugu. Beti daude elektrotxaranga batean falta ezin duten abestiak.

Distopia elektrotxaranga

Manex Iriarte, Villabona.
Ahotsa.
Kepa Otegi, Amasa.
Ahotsa eta dultzaina.
Inar Herrero, Asteasu.
Gitarra.
Xabat Artola, Altzo.
Gitarra eta ahotsa.
Irati Iturbe, Orendain.
Baxua.
Ainhoa Ontsalo, Alegia.
Tronpeta.
Markel Pita, Villabona.
Tronboia.
Unax Lizarraga, Zizurkil.
Bonboa.
Eñaut Aranburu, Villabona.
Kaja.
Arkaitz Balda, Alegia.
Trikitia.
Araitz Uria, Ikaztegieta.
Pianoa.

Bakoitzak bere instrumentua etxean ikasten du?

X. A.: Hori da berez ideia. Entsegu egunean, larunbat goizetan, proposamenak egiten ditugu eta datorren asterako prestatuta eramaten saiatzen gara. Bakoitzak bere ardurak izaten ditu eta hurrengo entsegua produktiboa izaten saiatzen gara.

Aurrera begira zein helburu bete nahiko zenukete taldearekin?

A. B.: Ez daukagu helburu finkorik. Momentu honetan oso gustura gabiltza, denak pozik gabiltza han eta hemen. Horrelaxe jarraitzea gustatuko litzaiguke eta datorren urtean mugimendu gehiago izatea.

X. A.: Aurtengoa guretzat nahiko uda hotza izan denez, kalean parez pare kontzertuak eman ahal izatea da hurrengo urteetara begirako helburua.

Baduzue esperantza datorren udan 'normaltasunez' kontzertuak eskaintzeko?

A. U.: Baietz esango genuke. Iazko Gabonetan ere esaten genuen uda hau *normala* izango zela, baina ikusi dugu nolakoa etorri den. Baina tira, karroa prestatzen ari gara eta ea datorren urtean zortea dugun.

Eta etorkizun hurbilerako baduzue kontzerturik lotuta?

A. B.: Bihar bertan Iruran eskainiko dugu kontzertua 17:30ean, eta irailaren 28an, Oñatiko kuadrilla egunean izango gara.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

OSTIRALA
Orokorrean giro lasaiak jarraipena izango du. Goizean hodeiren bat edo beste agertuko bada ere, zeruan urdina nagusituko da eta eguraldi eguzkitsua izango dugu. Arratsaldean barnealdetik hodeiak ugarituko dira, zerua estalirik utziko dute eta azken-azken orduetan euri pixka bat izango dugu. Hala ere, egunaren gehienean ateri eutsiko dio. Haizeak ekialdetik joko du eta tenperatura igo egingo da, 23-25 gradutan joaz goia.

LARUNBATA
Eguraldi ezegonkorragoa izango dugu. Goizean goiz euri zaparradaren bat edo beste izango badugu ere, goiz erditik aurrera eta arratsalde erdi arte giro lasaia izango dugu, non hodeiak eta ostarteak tartekatuko diren eta eguraldi polita izango dugun. Arratsalde erditik aurrera ordea, berriz ere hodeiak ugaritu eta euritara joko du, uneren batean ekaitzak jotzea baztertu gabe. Haizeak hego-mendebaldetik joko du eta tenperatura 24-25 gradutan errendituko da.

IGANDEA
Giro polita izango dugu. Egun osoan zehar hodeiak eta ostarteak tartekatuko zaizkigu zeruan, hodeiak ugariagoak izango direlarik egunaren lehen zatian. Bigarrenean ostarteak zabalak izango dira eta eguraldi eguzkitsua nagusituko da. Haizeak hego-mendebaldetik bizi xamar joko du eta tenperatura zertxobait jaitsiko da, maximoak 23-24 gradutan errendituko direlarik.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Prezioa	Atarikideek
15,50€	12€
45€	33€
51€	38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

IRAILAK 24, OSTIRALA
AMASA-VILLABONA
Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias.
Kale Berria, 34.
943 69 11 30.

IRAILAK 25, LARUNBATA
TOLOSA
Egunekoa. Iñaki Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

IRAILAK 26, IGANDEA
AMASA-VILLABONA
Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias.
Kale Berria, 34.
943 69 11 30.

IRAILAK 27, ASTELEHENA
TOLOSA
Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Korreo kalea, 20.
943 67 60 13.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA: TOLOSA.
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.

ZUZENEAN

Amezketako Txapeldunen XXXI. Txapelketa

Irailak 26, igandea, 17:00etan Larrunarri pilotalekua

Finalak

Kadeteak: Apezetxea - B. Labaka
Promesak: Irribarria - Iribarren
Eliteak: Exposito - E. Labaka

Zuzeneko emanaldia Ataria.eus webgunean
Esataria: Asier Imaz
Analisiak: Jokin Altuna

ataria irratia 107.6 fm
www.ataria.eus

harpidedun izateak badu saria saridunak

1 MENDEXA AVENTURA PARK

Bi lagunentzako bina sarrera

- Amaia Azpeitia Gaztañaga (Alegia)
- Usoa Esteban Nieto (Tolosa)

mendexapark.com
688 85 62 83
MENDEXA

ATARIA jarriko da harremanetan bonoa

2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera

- Garazi Altuna Gaztañaga (Tolosa)
- Carlos Izagirre Barberia (Tolosa)

aquariumss.com

Aurretik deitu behar da museora.

3 SANTANA ESNEKIAK

Fruitu gorri, marrubi eta yogur naturalez osaturiko opari sorta!
Baserritik zuzenean
% 100 naturalak!

- Izaskun Urbieta Usandizaga (Amasa-Villabona)

685 79 61 74
Kortezubi

ATARIA jarriko da harremanetan.

nekatur

'Opari Bonu Orlegia'

Bi pertsonarentzako bi gaueko egonaldia:
logela eta gosariekin, edo apartamentuan
Nekatur Nekazalturismo Elkartearen eskutik
www.nekatur.net • 943 32 70 90

Epaimahaiaren saria

BAILARA
RESTAURANT

bi pertsonarentzako otordu bat Bidania-Goiazko Bailara jatetxean

iriartejauregia.com - Eliza Bailara, 8.
Bidania-Goiatz. - 943681234

ataria.eus-eko erabiltzaileen saria

lixoné
Cuidado Natural

Lixoneren bi saski zozkatuko dira.

cosmenticalixone.com
Ibaiondo industrigunea, 11. Aduna. - 943691280

atarikide-en saria